



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2022KO OTSAILAREN 24AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko otsailaren 24an, arratsaldeko 19:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Iizarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Julen Beunza, , Xabier Azpiroz eta Ricardo Arangoa.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Olatz Dorai eta Santos Etxegia.

19:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Urtarrilaren 31ko ohiko batzarreko akta emailaz helarazi zaie zinegotzietei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

#### **2.- Alkate ebazpenak**

-2022/3 alkate ebazpena onartuz behin behinekoz Iñaki Rey Gomezek egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Aizarotzko Erdiko Karrika 6 2D helbidean dagoen etxebizitzaren salmentagatik, ikusita, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera salerosketak ez duela gainbalioa sortu.

- 2022/4 alkate ebazpena baimena emanaz Soraya Hernández Maquedari otsailaren 13an eta 20an Aizarozko plazan edo Kultur Etxearen edo frontoiaren inguruan nekazaritzako produktuen postu bat jartzeko baimena ematea, saltzaile ibiltari gisa.

-2022/5 alkate ebazpena onartuz lehen erabilera ematea Amaia Arano Nagoreri, Igoako 9. Poligonoko 248. Lursailean egindako bigarren etxebizitzarentzat. Etxe honen helbide postala ondorengoa izanen da: Natividad 17 (A) -31866 Igoa

2022/6 alkate ebazpena obra baimena emanaz Martin Arregui Lasarteri, Igoako 9. Poligonoko 16. Lursailean dagoen eraikiniaren bigarren solairuaren egitura egokitzeko eta beheko solairuko baoak haunditu eta berrantolatzeko. Obra honen aurrekontua 14.647,75 eurokoa da.

2022/7 alkate ebazpena obra baimena emanaz Jesus M<sup>a</sup> Madoz Zubillagari, Itsasok 4. Poligonoko 448. Lursailean dagoen biltegira argia eramateko 960 euroko aurrekontuarekin.

-2022/8 alkate ebazpena onartuz, Xabier Maresma Basterretxeak aurkeztutako aitorpen ardurtsua, Arrarasko 14. Poligonoko 363. Lursailean sondeoa egiteko, 2.000 euroko aurrekontuarekin.

- 2022/9 alkate ebazpena onartuz baimena ematea Beatriz Fuertes Oñari, Aizarotzko herrikoetxeko gela handia erabiltzeko otsailaren 18an arratsaldeko 19etatik aurrera baratzen urteko batzarra egiteko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

### 3.- 2021. Urteko plantilla organikoa. Behin betiko onespena.

Alkateak azaltzen du hasierako onespena 2021eko abenduaren 22ko batzarrak eman zion plantillari, ondoren eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio foru legearen 235. Artikulua jarraituz, argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean aipatutako akordioa. Urtarrilaren 10eko 5. Aldizkarian argitaratu ondoren jende aurrean egon da urtarrilaren 31a arte. Alegazioak ez direnez aurkeztu behin betiko onespena eman ahal zaio plantilla organikoari eta xehetua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu. Aipatzen du ere E mailako aldaketa Nafar Gobernuak bere langileentzat egin zuela jada urte batzuk baina beste udaletan ez duela aldaketa hori egin, tokiko entitateek onartu beharrekoa dela.

**Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute Basaburuko udaleko 2021. Urteko plantilla organikoa eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru Legearen 235. Artikulua jarraituz, argitaratzeko agindua ematen dute akordio hau eta plantilla organiko xehetua, ondoren transkribatzen dena:**

#### 2021EKO PLANTILLA ORGANIKOA

ZBKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA TALDEA	SARBIDEA	Osagarriak	Hizk. profila	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M. %28 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean

02	Zerbitzu anitzetako langilea	D	Oposizio lehiaketa	%12 M. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Hutsik
03	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%46,38 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
04	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%25,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposizio lehiaketa		C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposizio lehiaketa		C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
07	Garbiketa Zerbitzua Haur Eskola	E	Oposizio lehiaketa		B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik

### IZENEN ZERRENDA

#### FUNTZIONARIOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	GRADUA	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Elena Gaskue Jaunarena	Administraria	C	2000-03-28	3	%12, %28	Jardunean	%75

#### LAN KONTRATADUN MUGAGABEA EZ FINKOA

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Patxi Biurrarena Barrenetxea	Zerbitzu anitzetako langilea	D	2011-11-01	%12, %42	Jardunean	%100

#### ALDI BATERAKO LAN KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA

Begoña Arano Galarza	Administraria	C	2018/10/17	%12	Jardunean	%55
Maite Sanchez Lasterra	Garbiketa zerbitzua	E	2019/04/01	%46,37	Jardunean	%60,5
M <sup>a</sup> Begoña Azpiroz Muguruza	Garbiketa zerbitzua	E	2006/01/01	%25,74	Jardunean	%60,5
Cristina de los Reyes Ayerra	Garbiketa zerbitzua	E	2019/11/08	%25,74	Jardunean	%60,5
M <sup>a</sup> Paz Echarri Echeguia	Haur eskolako garbitzailea eta jantokiko laguntzailea	E	2017/11/02		Jardunean	%100
<b>LAN KONTRATUDUN MUGAGABEAK</b>						
Amaia Legarra Beunza	Haur eskolako zuzendaria	B	2019/08/26		Jardunean	%100
Amaia Oloriz Satrustegi	Haur eskolako hezitzailea	C	2019/08/26		Jardunean	%100

#### **4.- 2022. Urterako lan egutegia.**

Alkateak adierazten du urtero legez, urteko lan egutegia onartu behar du udalak, udaleko langileek ondoren zehazten den egutegi proposamena luzatu diote udal batzarrari, kontutan hartuta ondoren zehazten diren 2022. Urteko pesta egunak.

Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.

Urtarrilaren 6a: Errege eguna.

Apirilaren 14a: Ostegun Santua.

Apirilaren 15a: Ostiral Santua.

Apirilaren 18a: Pazko biharamuna.

Uztailaren 25a: Santiago eguna.

Abuztuaren 15a: Andre Mariaren Jasokundea.

Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.

Urriak 31a: Tokiko pesta eguna.

Azaroaren 1a: Santu Guztien eguna.

Abenduaren 3a: Frantzisko Xabierkoaren eguna.

Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.

Abenduaren 8a: Ama Birjina Sortzez Garbia.

Abenduaren 26a: Eguberri biharamuna.

Pesta egun hauetaz gain, beste 4 pesta egun izango dituzte Basaburuko Udaleko langileak tokiko pesta bezala izendatutakoak direnak eta ere horrez gainera, langileek

probesteko 3 egun izango dira, norberaren aferetarako, Alkatetzari aurretik behar beste denboraz eskatu eta arrazoitu behar zaizkionak. Norberaren aferetarako egun hauek orduka hartzeko aukerareik izango dituzte langileek.

Orobat, baliogabeak izango dira, 2022an epeak kontatzeari dagokionez, larunbata eta igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak.

Basaburuko Udaleko lanaldiaren urteko lanordu kopurua 1.592 izango da eta honela banatuko da:

Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, orokorrean, 7 ordu eta 20 minutukoa izango da, 7:00etatik 16:00etara.

A) Jendea hartzeko eta Erregistro orokorra irekitzeko ordutegia 9:30etik 13:30era izango da.

B) Organo administratibo eskudunek erregelamenduz ezarritako oporrak emango dituzte, gisa honetan: oporraldi luze bat edo bi eta egun solteak, urtean zehar hartzeko, zerbitzuko beharrek hala uzten dutenean.

C) Aurreko ataletan aipatutako lanaldiaren banaketa eta oporrak ez zaie aplikatuko, zerbitzuko beharrak direla-eta lanaldi berezi suerteren bat dutenei, ezta haur eskolara atxikitako langileei ere, horiek beren lan egutegia izanen baitute; hala ere, orokorrean ezarrita dagoen urteko lanordu kopurua errespetatu beharko dute.

Nolanahi den, urteko lanaldiaren iraupena baldintzatuko du 2022rako orokorrean Nafarroako Administrazio Publikoetarako behin betiko ezartzen denak. Horretarako, aldaketaren bat izanez gero, behar diren egokitzapenak egingo dira.

Bildutakoek ontzat ematen dute propositamena eta aho batez onartzen dute Basaburuko zebitzura dauden langileen 2022ko lan egutegia

## **5.- Gartzarongo 6. Poligonoko 6. Lursailerako hirigintza iharduera plan berezia.** **Hasierako onspena.**

Gai ordenetik ateratzea proposatzen du alkateak gai hau hirigintza batzordean aztertu behar delako lehenik, eta hurrengo astearterako deitu delako batzordea.

## **6.- Taxiaren baimenaren iraungitze aitortpena.**

Alkateak azaltzen du taxi zerbitzua bertan behera gelditu zela, oihiko gidariak JEZ-zergan baja eman zuenetik, hots 2020ko urriaren 28tik. 2005/9 Taxi legearen 14. Artikuluaren arabera, baimena iraungitu ahal da, beste arrazoen artean, iharduera eten delako 30 egun baino gehiago jarraian edo 60 egun baino gehiago aldizka 12 hilabeteko epean.

Hau guztia ikusita bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Basaburuko udalak Pedro Munarriz Goñiri onartutako taxi baimenaren behin behineko iraungitzea aitortu 2005/9 Taxiaren Foru Legearen 14.d.2 artikulua arabera.
- Erabaki hau baimenaren titularrari jakinarazi, 15 eguneko audientzia epea irekiz Prozedura Administratiboa arautzen duen 2015/39 legearen 82. Artikuluak arautzen duena jarraituz

## **7.- Beramendiko iharduera ekonomikoen gunea egiteko plan partzialaren.**

### **Hasierako onespena.**

Alkateak azaltzen du urtarrileko ez ohiko batzarrean onartu zela iharduera ekonomikoen gunea sortzeko parte hartze plana eta parte hartze prozesua bera ere. Parte hartze prozesua bukatutzat eman ahal dela, bizilagunen artean banatu den buletin bereziarekin eta proiektua aurkezteko egin zen batzar irekia egin ondoren.

Orain Lurralde Antolamendu Foru Legea garatzen duen 2017/1 Foru Dekretuaren 72. Artikulua jarraituz, parte hartze prozesua bukatu ondoren, industria gunea sortzeko plan partziala onartzeko tramitazioa egin behar da. Alinea ingenieria enpresak egindako plan partzialean zehazten da iharduera ekonomikoen guneako kokapena, azalera, sarbidea, sortuko diren lursailak eta beste...

Aipatutako Foru Dekretuaren 72. Artikulua jarraituz, dokumentu hau hasiera batez onartu behar da eta hasierako onespeneako akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu, hilabeteko epean jende aurrean egon dadin, hortaz bildutakoek, aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**Hasierako onespena ematea Beramendiko iharduera ekonomikoen gunea egiteko plan partzialari eta Lurralde Antolamendu Foru Legea garatzen duen 2017/1 Foru Dekretuaren 72. Artikulua jarraituz, hasierako onespeneako akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindu eman, jende aurreko epean hilabetez egon dadin.**

### **8.- Mozioak.**

Martxoaren 8ko emakumeen egunaren inguruan Berdintasun zerbitzuek elkarrekin adostutako adierazpena irakurtzen du alkateak, ondoren transkribatzen dena: *“Kontziliaziotik zaintza erantzunkidera; eraldatu irtenbidea aurkitzeko”* Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, agerian jarri nahi dugu zaintzalanek duten garrantzia herritarren garapen eta ongizaterako. *Pandemiak agerian utzi du egungo zaintza-ereduaren krisia, eta horrek ez duela funtzionatzen milaka emakumeren lanik gabe. Zaintza-lana funtsezkoa da bizitzari eusteko, baina askotan doakoa, ikusezina, prekarioa eta feminizaturia izaten jarraitzen du. Emakumeengan uzten da gehienetan eta zaintza-ardurak berdintasunez banatzea betetzeke dagoen erronka da, bai eta gizarte berdinzaleagoa eraikitzeo aukera ere. Ezin dugu ahaztu jaiotzen garenean pertsona guztiak interdependenteak garela eta*

*zaintzaren beharra dugula, eta horregatik berriz ere azpimarratu nahi dugu zaintza-lanei heltzeko moduan aldaketa bat behar dugula. Ezinbestekoa da generodesberdinkeriak, -rolak eta -estereotipoak gainditzea eta herritar guztiak sentsibilizatzea bizitza hala maila fisikoan nola emozional eta mentalean sostengatzen duten lanei ikusgaitasuna eta balioa emateko. Baina, zeri buruz ari gara «zaintzeari» buruz hitz egiten dugunean? Gure ongizate fisiko eta emozionalerako ezinbestekoak diren zeregin batzuk egiteari buruz ari gara, ordainpekoak izan ala ez. Gizakiok berezkoa dugu zainduak izateko beharra; pertsona guztiok beharko ditugu zaintza-lanak bizitzako une desberdinetan, intentsitate desberdinetan.*

*Orain arte, zaintzari eta esparru horretan dirauten desberdinkeriei, oro har, kontziliazio-politiken bidez heldu zaie. 2004an "Kontziliaziorako Toki Itunen" programa abiatu zen norberaren bizitza, lana eta familia bateragarri egitea hobetze aldera enpleguaren esparruan laguntzeko politiken bidez, baina zaintza-lanen banaketa desorekatua zalantzan jarri gabe. Izan ere, politika horiek emakume eta familia askoren egoera arindu dute, baina ez diote erantzun integralik eta benetako irtenbiderik eman aurrez aurre dugun problematikari: sexuaren araberako lan-banaketa iraunarazten dituzten genero-rol eta -estereotipoak, emakume eta gizonendako lan merkatuako sarbide eta enplegarritasunean dauden arrakalak, zaintza-lanak eta horiek antolatzeak dakarren karga mentala.*

*2022an kontziliazioaren ikuspegitik zaintzari buruzko lanera iragatea planteatzen da, eta Nafarroako Zaintzari buruzko Itunetan jasoko da. Paradigma aldaketa horrek berekin dakar zaintzari buruzko ikuspegia aldatzea eta erantzunkidetasun soziala gizarte-antolamenduaren funtsezko ardatz izanen duen eredu baterantz jotzea. Zaintza beste modu batean ulertzen duten gizarteak garatu behar ditugulako, eta genero-analisi feminista bat egin behar dugulako zaintza-lanak erdigunean kokatzeko, esparru publikoan, ikusten den horretan, garrantzitsua eta baloratua den horretan. Horregatik guztiagatik, martxoaren 8an, Basaburuko udalako udal batzarrak, honako konpromezu hauek hartzen ditu::*

*-Toki-esparruan zaintzaren inguruko ikuspegian aldaketak sustatzen dituzten politika publikoak bultzatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko.*

*-Ikusarazi eta balioestea bizitzaren jasangarritasuna ahalbidetzen duten zaintza-lanak, eta azpimarratzea sexuaren araberako lan-banaketa indartzen duten rolen eta estereotipoen eraldaketa.*

*- Aitortzea mugimendu feministak arlo honetan egindako ekarpenak eta lana."*

Bildutakoek aho batez, transkribatutako mozioa onartzen dute.

## **9- Batzordeen informazioa.**

### **Kirol Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.**

Otsailaren 26an ospatuko da Basaburuko Dukatloi proba eta martxan daude jada pala eta frontenis txapelketak.

### **Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.**

Mendialdeko aktibitate ekonomikoen diagnostikoa egingo da Cedernak eta horretarako Arete enpresa kontratatu dute. Eremu bakoitzeko ezaugarriak ezagutzeko elkarrizketak egingo dira.

### **Euskara Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.**

Korrika batzordeko bilera izan da gaur bertan, Korrika Kulturalaren egitaraua antolatzeko, Imotzko udalarekin partekatuz. Basaburuan, Hodei magoaren emankizuna egingo da, bertso bermuta Aizarotzko ostatuan, eta Dani Martirenak idatzitako liburuaren irakurketa eta tailerra Gartzarongo elkartean.

### **Gizarte Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.**

Martxoaren 8ko emakumeen egunaren bueltan bilera egin da eta bi ekimen antolatu, martxoaren 11ean afaria eta martxoaren 26an antzerkia.

Bestetik bilera egin da Osasun Etxeko zuzendari eta erizainarekin, COVID egoera indarrean egon den epea aztertzeko...

Bertan adierazi zen osasun arloko ordezkarien aldetik egoera baretu denez, odol analisiak berriro Jauntsaratsen egingo direla martxotik aurrera eta aurrez aurreko kontsultak bultzatuko. Bestetik aipatu zuten ere nahiz eta osasun lege berria indarrean jarri, ez duela honek eragin askorik izango eremuko osasun etxeetan. Martxorako deituko da Osasun Kontseilua eta udalak jasoko du bertaratzeko deialdia.

### **Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.**

2022-2023 ikasturterako matrikulazio kanpaina irekia dago Ttikiena haur eskolan. Plazaren erreserba 11 familiek egin dute, eta otsailaren 22ko ate irekien jardunaldira, hainbat familia berri bertaratu ziren.

## **10- Informazio orokorra.**

Ez dago.

## **11. Errege-galderak**

Ez dira egin.



Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:30 ak direnean bilera amaitu  
zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.